

ABERASTASUNAREN ETA FORTUNA HANDIEN GAIKEKO ZERGAREN EZAUGARRI NAGUSIAK 2015EAN				
Aitortzeko obligazio pertsonala	- Kuota likidoaren emaitza ordaintzekoa denean. - Edo ondasun eta eskubideen balioa (zorrak kendu gabe) > 3.000.000 € denean.			
Aitortzeko obligazio erreala	- Oinarri likidagarria 200.000 € baino handiagoa denean. - Kuota likidoa ezin da izan aberastasun osoa obligazio pertsonalarengatik zergapetu izan balitz aterako zena baino handiagoa.			
Ondasun eta eskubide salbuetsiak	Salbuespen nagusiak: - ohiko etxebizitza: 300.000 €-raino. - etxeko ostilamendua, 10.000 eurotik gorako balioa duten banakako elementuak izan ezik. - BGAE, pentsio plan eta antzekoei dagozkien eskubideak. - Euskal Herrian kokatuta dauden espezie autoktonoko basoak: 100.000 €-raino. - energia berriztagarrien instalazioak: 100.000 € -raino. - nekazaritza, abeltzaintza, erlezaintza edo basogintza jardueren ondasun eta eskubideak, jarduera horiek zuzenean eta pertsonalki egiten direnean, baldin eta errenta iturri nagusia ez badira: 100.000 €-raino. - Jardueren atxikitako elementuak. - Akzio eta partaidetzak entitate jakin batzuetan.			
Autolikidazioaren eskema	Ondasun eta eskubideen balioa - <u>Zorrak</u> . ZERGA OINARRIA - <u>700.000 €-ko murrizpena</u> OINARRI LIKIDAGARRIA x <u>Tarifaren karga tasak</u> KUOTA OSOA - <u>Atzerrian ordaindutako zergen kenkaria</u> KUOTA LIKIDOA			
Murrizpena	700.000 €-ko murrizpena pertsona hauei: - obligazio pertsonala duten zergadunei. - obligazio erreala duten zergadunei, baldin eta haien aberastasun osoa 700.000 €-tik beherakoa bada eta egoitza ez badute kokatuta paradisu fiskaletan edo Espainiako Erresumarekin informazioa trukatzeko akordiorik sinatu ez duten herrialdeetan.			
Oinarri likidagarriaren tarifa	Oinarri likidagarria	Kuota osoa	Oinarri likidagarriaren gainerakoa	Tasa (%)
	0	0	500.000	0,25
	500.000	1.250	1.000.000	0,60
	1.500.000	7.250	1.600.000	1,00
	3.100.000	23.250	3.200.000	1,30
	6.300.000	64.850	hortik aurrera	1,50
Babes fiskala	Ez da aplikatzen ondarearen gaineko zergaren "babes fiskala" edo kuota osoaren muga.			
Atzerrian ordaindutako zergen kenkaria	Bi kopuru hauetan txikiena: - zerga honen pareko karga batengatik atzerrian ordaindutako zenbatekoa. - atzerrian zergapetutako oinarri likidagarriaren zatiari zerga honen batez besteko karga tasa aplikatuz ateratzen den emaitza.			